



Harremanetarako:

Proiektu-Arduraduna: José Miguel SÁNCHEZ PÉREZ
Aguafash

Ecolab - campus ENSAT
Avenue de l'Agrobiopole
Auzeville Tolosane, BP 32607
31326 CASTANET TOLOSAN Cedex
FRANCE

Tel.: 33 (0)5 34 32 39 20 - Fax.: 33 (0)5 34 32 39 01

Email: secretariat@aguafash-sudoe.eu



Administração da
Região Hidrográfica
do Alentejo I.P.



neiker
tecnalia

INSTITUTO
SUPERIOR
TÉCNICO



MINISTÉRIO DO AMBIENTE,
DO ORDENAMENTO DO TERRITÓRIO E
DO DESENVOLVIMENTO REGIONAL



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE MEDIO AMBIENTE
Y MEDIO RURAL Y MARINO

CONFEDERACIÓN
HIDROGRÁFICA
DEL EBRO



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENCUADRAMIENTO LINGÜÍSTICO
PLANEACIÓN, DESARROLLO Y
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Nekazaritza Saila
Departamento
de Agricultura



R É G I O N



AQUITAINE



Agua flash

Uretako kalitatea okertzeko
arriskua ebaluatzen duen
prototipoa ...



**Arriskua
Kutsadura
Ur-jarioa
Ibaiak**

**Ibai-arroa
Modelazioa
Prototipoa**



www.aguafash-sudoe.eu



INRB.I.P.
Instituto Nacional
dos Recursos Biológicos, I.P.

Agua flash

2009 - 2012

Aguaflash Interreg IVB SUDOE (Europako Hego-Mendebaldea) programaren ikerkuntza-proiektu bat da, **Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF)** eta Frantziako **Midi-Pyrénées** Eskualdeak diruz finantzatua.

Aguaflash proiektuaren helburua Europako Hego-Mendebalde osorako aplikagarria izango den metodo bat bururatzea da. Metodoak ahalbidetu egin behar du nekazaritza jardueran duten ibai-arroetan uretako kalitate-okertzea ebaluatzea ur-goraldietan.

Europako Hego-Mendebaldeko nekazaritza jarduerako ibai-arroetan ingurune urtarrak kutsatuak izateko arriskupean izan ohi dira. Ibaietako uretan diren kutsagaien edukia arin eta nabarmen handitu daiteke egoera batzuetan, ibaietan izaten diren berezko ur-goraldietan batez ere. Era honetako gertaerek iraunaldi desberdineko kutsadura-puntak eragin ditzakete ibaietan, ordu gutxi batzuetatik egun batzuetarakoak, edangarriak izan daitezkeen urak edota ekosistema urtarrak berak ere kutsadura-arriskuan jarri ditzaketela.

Gaur gaurkoz ezin da lotura zuzena egin ibaietako ur-goraldien eta ibaiotako uren kalitate-okertzearen artean. Izan ere, goraldian zehar, eta emariaz gain, bestelako eragileek hartzen dute esku lotura horretan, hala nola topografiari, hidromorfologiari eta ibai-sedimentuen eta hauei atxikitako kutsagaien bermobilizatzeari dagozkionak. Hau honela, Aguaflash proiektuak kausa-efektua lotura horiek ezarri eta, ondorioz, arroan kutsadura-iturri diren zonak identifikatu eta ezaugarritzeko tresna izan nahi du, batez ere pestizidek ur-goraldietan eragindako kutsadurari begira dagoela.

Proiektuaren helburua, beraz, ibai-arroko eragile sozio-ekonomikoentzat garrantzitsuak diren galdera-mota biri erantzun egokia emateko elementuak eskaintzea da:

- Alde batetik, Europako Hego-Mendebaldeko nekazaritza jardueran duten ibai-arroetan ur-goraldietan izan daitekeen uretako kalitate-okertzearen ebaluazioa ahalbidetuko duen prototipoa garatzea. Prototipoak plangintzarako laguntza-tresna izan nahi du, edateko uren balizko hartze-guneak kudeatzean ur-goraldietako kutsadura-arriskuak ekiditeko
- Bestetik, ur-goraldietan uretako kalitate fisiko-kimikoan eman daitekeen okertze arin eta nabarmenaren ondorio biologikoak ebaluatzeke lanabes egokiak garatzea.

Proiektuak Frantzia, Espainia eta Portugal Estatuetakoko sei ikerketa-talde biltzen ditu:

- Ikerketa Zientifikorako Zentro Nazionala-CNRS (Frantziako Estatu), proiektuaren koordinazio-burua.
- Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (Euskal Herria, Espainiako Estatu).
- Ikerketarako Estatu Zentroa-CSIC (Espainiako Estatu).
- Cemagref, ingurumenerako zientzia eta teknologiako ikerketa-institutua (Frantziako Estatu).
- Toulouseko Institutu Nazional Politeknikoa (Frantziako Estatu).
- Baliabide Biologikoetako Institutu Nazionala (Portugalgo Estatu).

Lekuko eragileei luzatzen diegu gonbidapena, ibai-arroetako kudeatzaileak izan edota erabaki-hartzaileak, Aguaflash-eko bileretan parte hartzera, ingurumenaren gaineko kezke eta proiektuaren azken aplikazioez hitz egiteko. Argibide gehiago nahi izatekotan Interneteko helbide honetara jo daiteke **www.aguaflash-sudoe.eu** edo zuzenean harremanetan jarri proiektuaren koordinatzaileekin helbide honetan **coordination@aguaflash-sudoe.eu**.



Europako Hego-Mendebaldeko esparruan nekazaritza-presio handia duten lau ibai-arro hartu dira experimental moduan:

- Save arroa (Midi-Pyrénées, Frantzia Estatu)
- Flumen arroa (Aragoi, Espainia Estatu)
- Alegria arroa (Euskal Herria, Espainia Estatu)
- Enxoé arroa (Alentejo, Portugal Estatu)

